



“Arkeometria laborategi on batek goiz batean erabakiko luke Veleia auzia”

Juan Martin Elexpuru I
Filologian dotore

GIIVRII ATA SVTAN SIIR'A ANA,
SAN TV ISAN BII TI SIIVRII ISIINA IITOR

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Dani Blanco

Veleiako idazkunak egiazkoak dira. Sinetsi nahi nizuke.

Faltsutzaileak EHUko katedratiko guztiek batera baino gehiago jakin beharko zuen latinez, euskara zaharraz, egiptologiaz. Bueno, agian ez da hain zaila.

Fede kontua da edo ziurtasun zientifikoa?

Nik fedea aspaldi galdu nuen, gaia zientifikoa da guztiz.

Baina, egiazkoak diren ziurtasunak daude ala egiazkoak izan daitezkeenaren usteak?

Egiatzkoak dira gure ustez, baina humanitate zientziak ez dira aski dagoeneko eta laborategiek dute azken hitza.

Aurkitzaileek ere ez dute egun aurkikuntza defendatzen...

Hori esan dizuna, gezurtiaz gain, tontoa da.

Juan Martin Elexpuru ikusten dut nik kausa defendatzaile nagusi.

Eta Orpustan, Txillardegi, Luis Mari Mujika, Hector Iglesias... 2.300 sinadura entregatu dira. Hamazazpi txosten mardul daude bederatzi naziotako ikerlariak sinatuta. Harris, Fritz, Frank, Colmenero...

Prozesuan gauzak gaizki egin direla ezin uka. Horrek ez du aurkikuntza baliogabetzen?

Zein erraza den boteretik difamatzea! Beizeran Eliseo eta Idoia Arabako arkeologo onenak ziren, bihamumenean txarrenak eta gainera iruzurtiak.

Ez da hain zaila iruzurra egitea ere.

400 pieza gai eta hizkuntza ezberdinetakoak, garaiko materialetan, zahar itxura perfektuaz... Ezinezkoa. Talde handia eta milioiak beharko lirakeke. Eta zertarako?

Arkeologo profesionalak eta masajistik aritu ziren arakatzan.

Eta ikasleak eta harri-jasotzaileak eta era guztietako boluntarioak, munduko indusketa guztietan bezala.

Ez da jarri notizia, ikuskizuna, ikerketaren aurretik?

Bai, EHUk eta Diputazioak dena faltsutat jo eta arkeologoak heriotza zibilera kondenatu dituenan, gauzak behar bezala ikertu gabe.

Zerk bultzatu zintuen aferan buru-belarri sartzea?

Bidegabekeria usaina hartu nion erabakiari, eta ostraken argazkiak ikusi nituenan susmoak baieztatu nituen. Gutxitan izan ditut gauzak hain argi.

Eta ezin itxi eztabaida...

Egiak bere bidea egingo du, espero dezagun. Arkeometria laborategi on batek goiz batean erabakiko luke auzia.

Hara.

Problema da nola geratuko diren gure unibertsitatea eta katedratikoak, benetakoak direla frogatzen den egunean. ■

